



KANALAK BEZEROEKIN

Gure negozioia hedatzeko eta bezeroarekin harremana izateko, haiengana iristeko erabiliko ditugun kanalak ezinbestekoak dira. Azken urteotan, kanal hauek asko aldatu dira.

Gaur egun, web orri erakargarri eta konpletu bat izatea ezinbestekoa da bezeroak erakartzeko. Baita sare sozialetan presentzia izatea ere, besteak beste.

1 WEBGUNEA: Lehen urratsa webgune on bat sortzea izango da, gure produktuen salmentaren euskarri indartsua izan dadin.

- E-shop
- Telefonoa
- Posta elektronikoa

2. SARE SOZIALAK: Ondoren, gure enpresaren profila sortuko dugu sare sozial garrantzitsuetan:

 Twitter

 Instagram

 Facebook

 TikTok

Sare Sozial hauen bitartez, jarraitzaileak lortu nahi ditugu. Horretarako gure ingurunean eragina duten pertsoneri jarraituko diegu. Horrela gure enpresaren berri izango dute.

Gainera, kolaborazioen bitartez, eragin handia duten enpresetara hurbil gaitzke eta era berean “mundu honetan” gehiago ezagutarazi.

3. GOOGLE BILATZAILEA: Beste puntu garrantzitsu bat Googlen presentzia sendoa sortzea da. Gaur egun, bezero gehienak gure webgunearen edo enpresaren izenaren posizionamendu onetik irits daitezke.



4. PROMOZIO GURUTZATUA: Gure zerbitzuak susta ditzaketen negozioekin harreman komertzialak egitea, guk bereak sustatzearen truke. Hurbileko negozioekiko aliantza oso garrantzitsua izan daiteke, gure puntu indartsuenetako bat tokiko produktuen salmenta baita.